



1979

BIZKAITARRA
BIZKAIERAZ
19n. ZENBAKIA
EPAILLA
— 1979 —



IZURTZA'KO BASETXEAK ETA IKUSPEGIA



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

ERRIAK ETA ESKUALDEAK

JABETZA GALDUA

Euskalerrria'k ba-eukan bere buruaren jabetasuna.

Orduko erakoa zan. Ez laterri aundi ta batuaren jabetasuna. Be-maillan asi eta, astiro-astiro, gorantza joiana baiño.

Buru-jabetza ori, iñoren menpean ez egotea baiño asko geiago ez zan. Eta asko gitxiago be ez.

Erri bakoitxak bere buru-jabetza, eskualde bakoitxak bere Batzar Nagusia eta onen orde arazoak zuzentzeko, Aldundia. Eta gorago? Euskalerrri osoaren maillan? Or ez egoan izkuntza eta enda bakarrak emoten eban batasuna baiño asko geiago. Onenean be, agintaritzak bakarrik ez.

Baiña buru-jabetza ori, eskualde bakoitxak bere erara, nai ebelako edo ezkontza-bidez alkartu ziralako edo gudaz kendu eutselako, galdu genduan.

• *

EUSKALERRI BARRIA

Batez be Sabin'en aldietatik sortu da gure Errian, zorionez sortu be, erri-osoaren barru-miña: Eskualde guztiak, iparraldekoak eta egoaldekoak, bat gara eta batasun ori agintaritzak bakarraren erakundean agertu bear dogu.

Eta orrantza izan dira ordutik onako burrukak; egia esan, iparraldeagaz alkartzea oraindiño amesa baiño izan ez dala.

Eta bide onez joian egoaldeko burrukea, itxaropentsu ta gogotsu. Baiña zori txarreko guda kaltegarriak eta orduan jarri zan agintaritzak iguingarriak zapuztu eban amesa.

Ez dira txikiak izan ordutik onako burrukaldiak eta ekiñaldiak, baiña ondoren on aundi barik.

Asi da oraintsu, erri-agintaritzaren irudiz jantzita, ekiñaldi barria.

Eta orretan diardugu gaur, pozez bein, samintasunez urrengoan.

ERRIA OIÑARRI

Erri-agintaritzarako ekiñaldi guzti oneitan erria izaten da oiñarri.

Orrelan asi zan guda-aurreko ekiñaldia eta ortik doa gaurko gure ekiña.

Laster dogu errietako udal-abeteskundearen eguna, egun garrantzitsua benetan Euskalerrriarentzat.

Or bai egingo dira, edo egin bear leitekez, gizon zuzenak eta gogotsuak, euskaldunik garbienak eta ekintzaillerik. onenak aukeratzeko alegiñak.

Eta gaurkoz ez dogu poz-bide larregirik asmatzen. Baiña ez gaitzean ezezkorrak izan.

Une gaitxetan gure erri zeak bati erantzun dau eta oraingoan be erantzungo dau.

Udal batz egokiak sortuko diralako itxaropena ez dogu galdu bear oraingoz.

* * *

ERRI-BATZARRAK

Udal-Batzak oiñarri sendo lez jarri ondoren, Gernika'ra joan bear ko dabe, antxiña joaten ziran antzera.

An sortuko da buru-jabetza benetakoa, osoa ez ba'da be, an ebatzi bear ko da

Autonomi-araudia eta an egin bear ko dira gure legeak, Lege Zarrak gaurkotzeko.

Eta an, onartzekoa ba'da, onartu bear ko da Bizkai'ko Jaun Berria, Erregea edo besteren bat. Gaurkoz ez litzake izango, zori txarrez, Erregea onartu bear ra baiño.

Bide orretan, geuretasunaren billa, noraiño elduko ete gara?

Beste eskualdeakaz alkartu?

* * *

ALDUNDIAK

Antxiñako kontua da Batzar Nagusi orreitan Aldundia aukeratzea, batzarrerik batzarrerera bitartean Erriko, Euskalerrri osoko arazoaren ardurea artu dagian.

Eta oinkada onek be garrantzi aundia dauka: Aldundiak, dauken kutsua galdu eta oso-osoan erritik sortuak eta erriarentzakoak ba'leitekez, euren aginpide ta ondosenakaz, beste txori baten abestuko leuskigu

Ori lortzekoa dala esan lei. Eta nozko Aldundiak alkartu eta Euzkadi sortzea?

Ames utsa ete da?

EZIKETEA

JOLASA, UMEAREN ESKUBIDEA

UMEEN URTEA

Umearen urtean gagoz. Egia esan, ez: genduke umearentzat urte berezirik artu bear. Iñoren eskubicac egunero eta beti zaindu bear •ba'doguz, umcarcuak izan bai baintzat.

Bcraz, ez gencluke **umearen urterik** izendatu hear.

. Baiña, orrela dagon ezker, bere eskubide berezi bat aitaturiko dot: JOLASA!

Beste eskubide batzuren artean, «eziketa» eskubidea dogu.

Baiña... ezi ete dagikeguz umeak jolas barik?

Ez dot uste.

Eta geiago: ez dago jolas bako eziketarik.

«Eziketa» eta «jolas» ezin doguz banandu ume arloan.

* * *

JOLASA EZ DA GAUZA ERREZA

Gaurko gurasoen arazo gogor bat umeen eziketeta da,

Ezin ukatu arazo gogor eta latza dana.

Sarritan umeak urte. gitxi-gitxiz eskuetatik iges egiten dauskue, eta guk uste bako beste mundu barri baten bizi dira.

Ez dogu zer egin jakiten. Arduratuta geratzen gara.

Egoera bardiñean aurkitzen gara jolasa ezibidetzat artzen dogunean.

Eziketa gatxa ba'da, ez da errezagoa umeekaz jolastutzea.

Jolasean denporea emotea, bear ba'da ez da ain gatxa.

Baiña jolasa ezibidetzat artu eta asmo orregaz umeagaz jokatzea oso gatxa da.

Geienbaten, umeagaz ibiltzen garanean euren jolasa benetan arduratu • barik izaten da.

Aspergarri ez jakuzan bitartean, aurrera.

Ibilli ibiltzen gara, edo berean jarraitzen izten dautsogu. Jokabide onctan zer esanik ez biok zoragarri igarotzen doguna: bera beranean, eta gu gcurean.

Baiña jolasketa -au ez da oraindik ezibidera eltzen.

Ez dogu esan nai bakarkako jolasak ezibide, ez diranik ez.

Geure barrenengo jokabide arduragabea aztertzen ari naz: isillik eta pozik dabillen artean, jarraitu clagicla.

Beste batzutan umeen jolasak geure neurrira egindakoak izaten dira, edo oraindik txarrago dana : geuk ondo igarotzeko egiñak.

Au probatzeko aztertzea baiña ez legoke ondartzan igarotako egun bat edo igandc edo jai egun bat en izandako ibillaldi bat.

Beste askotan umeak eurak artzen clitugu jolastzat: Entretenigarri jakuz.

Ez ditugu seriotasun geiegian artzen.

Barre eragiten clauskuc, eta ondo igarotzen dogu.

Konturatu barik, jokabide oso gcurekoian jokatzen clogu; eta sarritan, naiz eta barro eragin, gizontasun geiagoz artu bearrekoak dira. Sarritan umeak gizondu bearrean umetu egiten doguz.

JAI EGUNAK ETA OPORRAK

Aldi bi oneik adibidetzat arturik, gauza bat argi ikusten dogu: geienbaten gurasoentzat edo gurasoen ikuspegitik antolatzen dirala.

Oso gitxitan, edo gitxientan, izaten dira bestera.

Zer esanik ez umeen ikasketak kontuan artzen ez dirana.

Eta penagarria da: umeak sarritan liburuetatik baiña izaditik geiago ikasten dabe; ibillaldietako ikasketak atsegingarriago jakez, et::, ostera, ez jake laguntzen berezko ikasketa orreik egiten.

Etzetik urtetzean, herebillez edo egazkiñez joan, elburu bakar bat baiña ez da izaten: eltzea.

Ez dago bitartekorik, joanean ikusi daitekenak ez dauka zer ikusirik edo aitaturik.

Onela izanik, Geografia eta Kondaira liburuetako ikasgai teorikoak askotan ikasgatzak edo eziñak izaten dira.

Liburuetako teoria utsa aspergarri biurtzen jake umei. Bardin dautse, esate baterako, itsasaldeko edo lurbarruko giroa, landaretza, edo abelazkuntza.

Oso gatx egiten jake bear daan eran gauza oneik ulertzea.

Kondairan be arazo bardiña dogu: Bizkaiko lurraldeak teoriz ulertzeak edo ikasteak ez dautse gauza aundirik esaten.

Ez dagigun ezer esan lurraldeak ezbardintzeari buruz: Eurentzat Abellaneda zein Gerediaga bardin da.

* *

ADIBIDE PRAKTIKO BAT

Etzetik egiten diran urteerak apur bat obeto antolattiak izan bear litzakez, kultura aldetik beintzat.

Nora edo norantz joango dan jakiñik bidean aurkitu daitezan ikusgarri edo jakingarriak kontuan artu hear litzakez.

Mendirantzarako ibillaldi baten bertan be gauza interesgarriak egin daitekez: aal daanik eta erri edo lora-mota geien batu, zeinik zuaitz izen geiago aitatu, abere mota ezbardiñak aitatu, nekezaritzako lan era edo uzta ezbardiñak ikasi, eta abar eta abar.

Josu Legarreta

BIZI - EGARRIA

*Martillu otska daukat bizia,
olermenetan bamean;
barneko gizonak bizi nai dau,
eriotzaren ostein.*

*Zarata illezkorra jabilkat,
odol ta azurrez esaten;
aragi guztia bigurtzen jat,
ilko naizela entzuten.*

*Gogoak dirauts gaoiz gaztietan:
bizia nai dot benetan;
illezkor da bizi egarría,
gizonaren naimenetan.*

*Asmamen au ez da nerea
Egillea daukat deika
burdiñak baño gogorrigo da
naïmena daukat indarka.*

*Illak biztu zitun Egilleak,
gizonak arritu ziran;
ezpaiak sortu ziran lurrean,
gizon aduok bait liran.*

*Gizon guztiak barne-miñetan,
bizi-garrari begira;
bizitza egarría ezin
barrua otska argira*

*Gizona aske da sinismenetan...,
Aitaren biotz zabala...;
demokrazia dauka Jainkoak,
gizonak onartu aala.*

*Bizia egia da munduan,,
gizonen buruan dantzán;
biziak zurtu dira lurrean,
amets gorrien loratzán.*

*Bizia maite, bizia atsegin,
eta zer dan ezin jakin;
eskutuan eta bertan dago,
Egille Bera gurekin.*

*Gizona, nora oa billaka,
urik ez dagon tokira?
Bizitz iturria eskutuan,
urietara begira.*

*Egillea, ixilik, dirauzu,
arruko amiltegian;
gudako gizon oiva artzen,
karrazi bizi bizian.*

*Il oro dagoz zuri begira,
justizia itxaroten;
gizon gaiztoen ankerkeria,
odalak ez dau ittoten.*

*Anai zapaldua eta illak,
Jainkoa eskatzen dagoz;
lurrean Kristoa sinistuaz,
ilda ezpataren agoz.*

*Gizonak ezin il betirako,
anaien bizi sendoa;
gaurko iltzailleak autorturen;
ni izan nintzan eroa.*

*Munduak ezin nan asetuta,
gogoaren barrenean;
au da itxaroaren nekea,
biotzaren muin bamean.*

*Katei artean bezela dago,
nere bizia intzirik;
askatasun argia eskatzen,
zeru izarreen dizdira.*

*Nere naiak ez da,4ka azkenik;
Jaungoikoa, zuk, b Jkarrik,
emon al zeinko semeari,
zorion asegarririk.*

*Gizona aundia da bere baitan,
jakituriz, maitasunez;
zerua bear dau poztureko,
gizoneen askatasunez.*

Paulin

IZKI-SOKUAREN ERANTZUNAK

I	D	E	G	U	L	M	I	A	D	T	E	P	L	K	U
R	O	R	B	I	Ñ	X	Z	D	L	J	T	M	O	T	P
I	M	R	E	P	U	L	S	E	E	E	I	A	K	I	E
M	E	O	L	A	X	O	R	O	T	S	B	I	A	U	L
D	X	T	O	G	A	T	E	D	E	T	A	X	R	O	L
S	U	A	M	I	X	I	L	A	L	I	X	A	R	E	T
B	E	N	I	U	J	E	K	L	O	X	A	G	I	K	U
A	R	O	N	E	P	D	Ñ	K	U	B	D	E	A	B	A
I	I	D	I	R	I	N	O	I	T	O	A	J	K	A	G
N	I	B	E	R	A	D	A	T	P	I	X	L	E	T	L

IZKI-SOKUA.—Itz onein artean oraingo bost euskal-abeslariren izenak edo abizenak dagoz. Zaintzuk dira? Ataratzén ze ba'dozuz, ikus azkenengo orrialdean.

Filininas eta Euskalerrria

Guretzat, euskaldunontzat, ba dauka Filipinas'ek zer ikusirik eta zer ikasirik..

Magallanes portugaldarra eta Elkano euskalduna izan ziran 1.521 urtean Filipinas'ko ugarteak leenengo aurkitu ebezanak.

Bertako bizilagunak burrukaldi batean Magallanes il egin eben, eta orduan itsasontzien agintaritza Elkanok artu eban.

Iru urtetan munduko itsasoak zear, azkenean Elkanok Ludiari leenengo aldiz bira-buelta emon utsan.

Bost itsasontzi eta 265 mariñel urten ziran, eta ontzi bat bakarra eta 18 mariñel gosez ilik etorri ziran Sanlukar de Barrameda'ra. 1.522 urtea zan.

* * *

LEGAZPI'TAR MIKEL EUSKALDUNA

Baiña Filipinas benetan irabazi ebana Zumarra-ga'ko seme Legazpi izan zan.

Buruzagi onek ia odolik ixuri barik 400 gudarikin bakarrik, ango bizilagunen borondate ona irabazi eban.

Legazpi'ren jokabidea izan zan, bertakoai beti ondo esan eta alegin guztiz lagundu. Onela leengo arerioak, orain lagun egin ziran.

* *

ESPAÑAREN MENPEAN

1,522 urtetik 1,898 urterarte Filipinas España'ren menpean egon zan, eta ainbeste urte ondoren bertako jendeak %, 10 bakarrik ikasi eben erderaz edo gaztelaniaz berba egiten.

Ara joan ziran mixiolariak be bertako izkuntzak erabiltzen ebezan dotriña irakasteko.

19 garren gizaldian Filipinasek 7,500,000 bizilagun zituen.

—kristiñauak	6.500.000
—mahometarrak	300.000
—jentillak	700.000

* * *

JOSE RIZAL ASKATZAILLEA

Filipinas'ko askatasunaren aurrelari Jose Rizal izan zan, osagillea eta filosofoa.

España'ko agintaritzaren aurka jagi zalako afusilatua izan zan.

Rizal il ebenean askatasun gosea eta. gerra-guda sutu eta indartu egin zan.

Norbaitek kontseju au emon eutson Manilas'ko españatar agintariari: Ez egizu Rizal erail, ortik «martiri» bat izango dabe zuen arerioak.

Iru urteko gerra edo guda-ondoren Filipinastarrak bere burujabetza lortu eben, eta Rizal —leengo «traidorea»— orain aberriaren «askatzaillea» da.

Ala da historia

* * *


1890 urtetik 1935 urterarte Filipinas Ipar-Ameriketaren babespean- egon zan, baiña askatasun edo autonomia zabal eta nasai baten barruan.

Leen erdera izan ba'zan izkuntza ofiziala, orain inglesak indar aundia artu dau filipinastarren artean.

Baiña azken-ludiko gerran, japonesak sartu ziran eta inglesa beeraka joan zana Japonese eta bertako «tagalo» izkuntzak goraka andia egin eben.

Ofizialtasunaren indarra!!! Guda amaitu zanean barriz inglesak indarra artu, eta japonesak dana galdu, baiña «tagaloak» iraun, egin eban.

* * *



TAGALO IZKUNTZAREN INDARRA

Filipinas'ek bere burujabetza osoa lortu ebanean, 1.935 urtean, abertzaletasunarekin batera bertako izkuntzak ere goratuak izan ziran.

Baiña ostopo edo eragozpen andi bat aurkitu eben: Filipinas'en izkuntza BAT ez zan egiten.

Zer egin?

Izkuntza guztietatik «tagaloak» eukala indarririk andiena eta zabalena konturatu ziran, eta beste izkuntzak il barik, «tagalo» artu eben ofizialtzat iglesarekin batera.

Gaurko egunean 5.000.000 egiten dabe tagaloz, eta Manila, ango uriburuan, bi egunkari agertzen dira «tagalo» utsean idatzita.

* * *

EUSKALDUNOK ZER?

Nire ustez, guk ere, euskaldunok, au egin bear geunke gure euskera indartzeko: OFIZIALTASUN indarra embn, bestela galdua da, eta gero bide «praktiko» bat artu euskalkiak bat egiteko.

Zein bide?

Filipinastarrak artu dabenaren antzekoa : zein izkelgik dauka gaur eta orain, indarririk eta zabaltasunik andiena? Orize bera artu euskaldun guztiontzat idazten dogunean, edo ofizial edo teknika lanetan.

ZEIN da euskaldi ori? Zalantzarik gabe GIPUZ-KOERA.

Au zan Azkue, Euskaltzaindiko buru ainbeste urtean izan zanaren, elburua. GIPUZKERA OSOTUA izan bear leuke EUSKERA BATUAK.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

MALPIKA TA AZKUENAGA'KO TORRE-ETXEAK

ABERRIAREN EZAUGARRI

Torre-etxe asko ta baliotsuak doguz Euzkadi'n.

Oietako torre-etxe dotoreak kondairaz eta aspaldi bateko erri-kutsu ta arnasaz gainezka dirauenak nun-nai daurkiguz.

Beste sasoi eta denpora-aldi batzuk ziran; ala ta be, edestian zear gure aberriaren orduko ezaugarririk beiñenak, beti elburu garai ta ospetsua bete ez ba'eben be.

ERDI JAUSIRIK

Batzuk urteen zurrumbilloan joan-etorriaz erdi-jausirik ta kaskaildurik dagoz.

Ez da arritzekoa.

Beste batzuk tinko darraie oraindiño.

Gaur Bizkaia'n, Txoi rierri lurraldean, garrantzitsuenak diranak egiztaturik, euretzaz zertzobait esatera noat.rue.

SUSUNAGA TA SANGP.ONIZ

Sondika-aldean ta Urkiaga deritxogun auzunean Susunaga'ko torrea kokatzen da.

Eta Luxu'n Sangroniz'koa.

Beste bat, Oxangoitiko leiñutik etorrena, egungo egunean bere inguru-minguruko lur eta guzti baserri eder baten itxuran eta zeregiñetan aldatuta dago.

ENTZUTE AUNDIKO BI

Bi doguz, alan da guztiz be, gorarik aundi-koenak, eta biak egunotan «Kondaira-erti Sailleko etxe-bikain edo Oroigaillu-etxeak izendatuak izan dira.

Or daukazue zergaitik pozgarria: Kondaira ta Erti buruzko Ondausunen zuzendaritza Orokorrak Malpika ta Azkuenaga'ko torre-etxeen ardurea artu eban eta aurrerantzean eurak etxe bikain lez ezagutu eitezán, irixpi-deen edo auzibideen asierea emon.

KONDAIRA-ETXE

Alan ba, Malpika ta Azkuenaga-ko torre-etxe bi oneik osperik gorenegoena eurakanatu dabe.

Zio au bide, dogularik eta ondoren lez, iñork ezin leiz Etxe-Bikain edo monumentu oneik ezetan be, ez eurek ikutu edo zerbaiten aldatu, ezta ere euren ingurumarietan edo zelango aldakuntza ta gora-berarik onartu, Bizkai-ko Ondausunen Batzarraren baimenik gabe.

ZELAKOAK DIRAN

Malpika'ko torre-etxea Zamudion datza eta Manuel Basas'ek «Bizkai-ko Torre-etxeak» idaztitan dirauskun lez, Sondika, Luxu, Zamudio ta Derio'n dagozan Torre-etxe guztien artean, bera dogu garrantzitsuena.

Martin deunaren erri-eleizatik ur-urrean dago eta izena bere jabe izan zan Malpika'ko markesagandik datorko.

Ondo be ondo ta tinkatua da, guztia arri utsez eregia dogu.

Ormen zabalerea, benetan izugarria. Atera igoteko ataritxo bat, gaztelu-almenaz apainduta eta gezi-leioz ta abarrez orniduta dago.

AZKUENAGA'KOA

Azkuenaga'ko torrea, ostera, au be erdi baserri dogula, Lezama'n aurkitzen da eta amabostgarren mendekoa dogu.

Ganguren mendi-besang,tren oin-oiñari dautsola ain zuzen.

Butron eta Oxangoiti'l o jauntxoak izan zituan jabe eta torre-etxearen jaun nagusiak.

Guztia arlanduz jasorikoa da eta bertan idoro geinkez torre ospetsuenerarikoetan lez, irrikituak edo izkillo-zirrituak, mako zorrutzak (ojibadunak), igoteko ataritxoa ta beste antxiñako guda gazteluen esparrutresna-bereziak.

EZAGUTU DAGIGUN ERRIA

Ia gure Euskalerriko zer baliiodunak obeto ezagutzen eta aintzatuten doguzan !

Ba-doguz, bai, egitan, gure inguruan, urrin joan barik, berein toki miragarri astiro so-egitea merezi dabenak.

Ez ete da egia?

ARREGI'tar Josu'k



BARRIAK

ABADE BARRIA ZALDIBAR'EN

POZA TA NASAITASUNA

Arnasea zabal-zabal artu genduan otsaillaren 11'n Zaldibar'ko erri politean.

Sarritan, gure errian abadeak gitxituez doazela ikusirik, biotza estutu egiten jaku sinistedunai, baiña egun orretan, Jose Luis Extebarria gaztea Gotzaia agurgarri Jon Mirena Uriarte'ren bidez abacietza artzen ikusteaz, gure biotzak guztiz zabaldu ta baretu ziran.

Bai Poztasuna ta nasaitasuna biotz guztietan!

DANA EUSKERAZ

Euskerazko Iiturji ederra izan zan. Otoitz, abesti ta negar gozoz inguraturik sagaratua izan zan gure Jose Luis.

An batu zan Bizkai'ko abade-talde aundi bat.

Ikusi genduan baita, abade gazte-mordo ederra. Arekaz Bizkai'ko eleizeak ez dauka bildurrik. Olako abade-mordo gaztea daukan artean, Eleiza aurrera joango da.

ABADE GAZTE BAT

Igande orretatik, abade gazte bat geiago, Jose Luis Etxebarria, Zaldibar'en jaioa, Arrigorriaga'n bizia eta, urte-mordo baten San Anton'go parrokiari, Bilbo'n, edo rto lagundu dauana.

Bai euskal liturjian, bai euskal-katekesian, «Izarberri» gaztetxu-ta dean, eta abar.

Orregaitik emen maiteago dogu bera.

SAN ANTON'DYK ESKER ONA

Ni neu berari eskerrak emoten nago beti, beste abadegai eta erritar batzukaz San Anton'eri euskal-kutsu apur bat emoten lagundu eustalako.

Lenengotan euskal arazoak ostopo asko ebazan Bilbo'n, baiña, Jose Luis'eri ta beste mordo bateri eskerrak, emen jarri zan lenengo euskal mezea, euskal katkesisa ta abar.

Bein eta birritan esango dot Benetan jai zoragarria izan zala Jose Luis'en sagaratzea.

ARRATIA'RA LANERAKO

Eskerrak emon bearrean gagoz Gotzaiñari, Iñaki Aurtenetxe San Anton'go abade laguntzaille eta sagaratzea jakituriz zuzendu ebanari, Xabier Eskauriatza meza-oartzailleari, abadeai; ebeslariari eta erri guztiair.

Orain Jose Luis'ek, Dima • ta Arratia-alde guztian lan ederra egingo daukala, ez dago zantzarik.

Aurrera, abade barri! Eta jo kementsu, hil-durge eta ernai!

ARRATIA'RA ELEIZ-LANGILLE



SAN ANTON'GO ELEIZA

*Ibaizabal'ko erreka ondoan
Bilbo'k ba-eban gaztelu
milla berreun ta ogetamirun
ordez eliza eratu
gure gurasok eliza ori
San Agustin aundin babespen
zabal ebanek
Santu aundiak entzule*

*Urte aretan uda Geroko.
dagonillaren bostean
gaztelu kairioin dun bada orde
kanpaiak pozez don, din dan*

*Eliza polit gotiku geien
bere gerizpe errekan
beragaiz bikoitz uri aldundi
erri oñarri batean.*

*Oro artako biztanle danak
ziran euskadun zintzoak
euskaldun k gez langin la kristau
biziz batean guztiak*

*Mundu osoan Bilboko erria
ezaguna zan gorengo
eliz ondoko erreka garbik
badau zer egin bai sendo*

*Itxaz-ontziak urteten babe
salgaiz beterik ba-doa
Brujas alderuntz sal-erosketan
Bilbo aunditu naiagaz*

*Urtek joan eta urtek etorri
Bilbo aunditzera doa
baiña amaituz ia ia guztiz
euskaldun usain gozoa.*

*Eliza barrun gordeta diren
euskaldun zarren azurrak
euskal azia lurpean eben
bota ditue sustarrak.*

*Emen asasi da euskal itzartzen
euskal meza ta liturgiz
landara idar artzera doa
'bete arte Bilbo guztiz.*

*Bilbo maitia euskaldun jaio
euskal usain galduz gero
ostera euskaldun biurtzen zoaz
ori zure bizitz bero.*

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

JABETZA TA URRUTIKUSKIÑA

Elorrio'ko seine jatorra ta bizkaitar alduna clogun Iñigo Agirre'k, astebete-inguru Italia'tik zear, Lombardia ta Piamonte lurraldeetan egin ondoren, bertako urrutikuskin bereziak ikusi ta gero, zer baliotsu batzuk esan dauskuz.

Bere joan-etorri orren elburu ta jomuga beinena, euskal-teleikuskin orokor bat irasi ezezik, euskal urrutikuskiñaren ikastetxea sortzea be izan da

Guzti au bide dala, aldiz, deporaz, gertatu al izango dira, urrin ez dagon gero baten, bizibide orretan jarduteko gai izango, doran notiñik egokienak.

Italia'ko errialdeetako urrutikuskin-kate oneik (laterri osokoak ez diranak) oso indartsuak dira, antzute aundikoak, bai ospez, baita gizartez eta cliru-eralgi txit urriakaz ain zuzen erabilliak cliralako be.

Orrez gaiñera, 'uretatik noizean bein irabazi inamintsuak be atara leikez, batetik jente gitxi bear dabelako ta bestetik tekniku erdi-zaletasunezkoak edo erdi «proiesional»ak erabilli leikezelako.

* * *

EUN ETA OGEI KATE BEREZI

Italian 120 kate berezi dagoz. Lenengoa Biella izeneko urian, 1972'an irasi zan. Gaut Biella'k 60.000 biztanlegaz, kate bi daukaz. Batek bost tekniku eta 22 izparlari daukaz eta 50 km'ra ikusi ta entzun leike. Tresnen balioa 20 milloakoa cla eta urtean 12 milloa eralgiten dira egitarauak gertatzen.

* * *

DIRUBIDE ETE DIRA?

Iragarkien zabalkunde eratsu ta zuzen baten bidez, txindi ugariak lortuten dabez. Kate oneik laterriko teleikuskiñiak eldu ez diran tokietara sarturik, erritar eta baserriko leku eskuetan kokatzen dira eta orrelan oso errezago jake bertan bertako iragarkiak zabaltzea.

Beste dirubide bat, egiten dabezan egitarauan salmantan daurkie. Olan zur jokatu dabe benetan. Ia euskaldunak be, aldia elduten jakunean, ain zur jokatzen dogun!

Eratuten dabezan egitarauak mota askotakoak dira: kultur-gaizkoak, inguruko ta errialde-etako eguneriko barri nabarmenak, txitcan pitean laterri osokoak be kontuan artzen dabezela, sarriran

argihidezko «documental» gai gora aundikoak eta abar.

*

JOKABIDEA

Eguneroko urrutikuskin saioen luzacra, bost orduko da: arratsaldeko seiretatik gabekoa amai-kak arte. Larunbat eta igaleetan ordu bi geiago. Eta ordu askotxu diran lez, pelikulak be erosi ta urrutikuskiñean ipinten dabez.

Norbaitek, gauzak orrelan ikusirik, itandu laikegu: Laterri osoko urrutikuskiñari kalterik egiten etedautsoe?

Gure erantzuna, ezezkoa da, egin-egiñean. Laterrikoa irugarren kanala, errialdeen serbitzurako, ipinteko gertu dago. Euren artean alkar osotu egiten dira.

*

LATERRIARENA IN DARTU

España'ko urrutikuskiñaren zuzenclari-batza-rean, katalandarrak eta euskaldunak esku izan dira eta oneik ipiñi gura dituen errialdezko egitarauai baietza emon dautse espñatarrak. Legegi-leen baietza baiño ez da bear.

Iru gauza jazo leitekez:

Lenengoa: Ordu ezbarðiñetan ipiñi laterriko ta lurraldetako egitarauak.

Bigarrena: Ordu bardiñetan, baiña lurraldeetan kate bereziak. Ordu batzuk laterrirako.

Irugarrena: Lurralde-kateai euren orduak ezarri.

Euzkadi'k buru-jabetza lortzen ba'dau, urru-ikuskin askca bear leuke eta orduan ikusi bearko leiteke, kale-bakarrekoak legez ezarriak izango Icitekezan.

* * *

ZER EGIN GAUR?

Gaur zur eta burutsu jokatu bearra daukagu, aldi obeak itxaroten doguzan artean: daukagunaz jarraitu eta ordu geiago lortu. Euskerazko ekiñaldiak sartzeko itxaropena be'ez dogu galdu bear.

Beste itaun asko be egin jakozan Iñigo Agirre'ri Deia'ko izparlariarcn aldetik, baiña gaurkoz naikoa danez, beste baten, al ba'dot, onetzaz barri pozgarriak emongo dautzuedaz.

A'TAR JO

Euskal Olerki Txapelketa

10-15 URTEKO GAZTETXOENTZAT

Aurretik iragarrita egoanez, aurtengo urtarri-laren 28'an ospatu zen poesi jai au. Amar urtetik amabost bitartean dabilzan gaztctxoak artu eben esku, egitarauak iñoanez. Olerkigintzan, gaia bako-txak nai ubana izan zan, euskeraz izan ezkeru, ta norberak idatzitakoa, ez iñorena. Konkurtsoan parte artu eban bakotxak bere olerkia irakurri eban epai-maiko en aurrean, baita «Enbcita Oles-karia» liburutik noberak aukeratutako beste bat be. Sariak oso onak ziran. Txapelketa au Zorno-tza'ko «Erti-kultur Alkarteak» eratu eban, beste urteetan lez.

ASIERAKO ITZALDIA

Amabi-amabietan an giñan guztiok, Alkartea-ren areto edo sala txukuna ondo beterik. Gazte-txoak, mordo polita, andik eta emendik ona etorriak alai ra urduri agerotzeri ziran, berezko danez.

Txapelketa oni asiera emoteko, gazte batek, Mikel Etxebarria'k, Deusto'n ikasle danak, otzaldi labor mamintsua egin euskun. «Txapelketa au —nioan— eus'.eraren aldeko eginkizuna da. Eus-kerari gaur egoera barri bat agertzen yako: Auto-nomi egoera. Egoera onetan eziketa euskal eskuetan geratu bear da, eta eziketa gure eskuetan gelditzea garrantzi aundi-auuciikoa. dozu. Ikastolak uga-irtzea sortu bear dozu, eta diban izatea.

Danon zeregiña, zar eta gazteona, auxe izan bei: euskera ez ciakianak, ikasi; euskeraz itz egiten dauanak, geiago ikasi ta alfabetatu; euskal prentsa irakurri, ari ta oni lagundu. Euskeraren etorkizuna geure cskcutan ciago: geuk .nai ba'dogu, biziko cia; geuk nai ez ba'ciogu, ilgo yaku; lotsagarria izango litzateke ainbeste urtetan irauan dauan gure izkuntza maitea geure egunetan, genre itxitasuna-gaitik, betiko galduta geratzea.

SARIAK EMOTEA

L'_ncngo bostai sari bereziak emon yakez: Alkarteko mar;azkidun platera, Bizkaiko Aurrezki-Kutxak emondako liburu-txorta polita ta dirutan bertokoai 300 pezeta ta kanpotik ona eldu ziranai, 500 pezeta b_ikotxari. Bostok oneik izan ziran: Joseba Andoni Agirretxca (ondarrutarra), Silbia Aldazabal, Nekane Gomuzio, Miren Gotzonc Azpitar tex ta Karñi.ele Ansotegi. Beste bostek be, Karmelc Aurtenetxe, Maite Alvarez, Zorione Etxebarria, Kristina Etxebarria ta Idoia Apraiz (Garbiñe'ren orde) «deduzko aipamenak eta saritxoak izan ebezan.

Aita Onainciia, Ancicr Etxebarria, ta Scrapio Ugarte izan ziran maiko, Alkarteko ugunsia, R. Intxausti, guztion buru zalarik.

ZELAKO OLERKIAK?

Norbaitek, bear bada, miin-zolitzu esanfo dau: Umetxuok, baiña, zelako olerkiak osotuko? Emen dozu lenengo saria jaso ebana; irakur eta zeuk emon epaia. «Udazken illuna» dau izenburu.

Urrian hasten dira
orbelak erortzen,
zuhaitzen aurpegiak
ba-doaz goibeltzen.

Euri lanbro illuna
hasia da hausten:
aurpegi beltz tristeak
ikus nik nunbaiten.

Mendi orlegu beltzak
ba-doaz leortzen,
aizeakin batera
belarr zanpatzen.

Kale txoko guztiak
hasi dira ixiltzen,
agureak doaz
geiago m: tkurtzen.

Mariñelak ez dute
ezer arrapatzen;
ziur ba a.' dakite
zer yaken gertatzen?

Azeri urtintx guztiak
daude gosez hiltzen...
Nor da bihotz zabala
emoteko jaten?

Tristeturik ohean
basi naiz sartzen,
beste udaberrirarte,
gero poz gaitezen.

Silbia Aldazabal'ek bere baserria abestu eban onela:

Ango arbolak, ango aizea,
ango zela eta baratzak;
erreka garbi ta kantariak,
goitik beera soñuz aberatsak.

Euskera da ango izkuntza,
euskalduna angoen izatea.
Ai!, zoragarri bai dala
nire baserrian bizitzea!

Nekane Gomuzio'k bakeari eskiñi eutsozan here Ian estrQfak. Ona bigarrena ta irugarrena:

Bakea nai dot neure bizitzan,
bakea neure familian,
bakea neure ikastetxean,
bakea gizonen biotzean.

Bakea da nire elburua.
Nai dozu, gizona, nigaz Iota?
Alkar gaitezan guztiok,
ta begiak gora zuzendu.

Miren Gotzonc A•r.pitarte'k be ba-dan oler-sena. Orretan jarraituko ba'leu, bertsolari ez-ezik,



Zornotza'n, ume olerkarien sari-banaketan

olerkari bikain izatera be elduko litzake. Ez izan dudarik! Ona bere lantxo oso-osorik:

**Batetik aurrerapena
ta bestetik ziñismena,
Euskal Erriak eskeintzen dauan
bere fruturik onena.
Baña ez eske da asko geiago
ortikan artzen dabena?**

**Asko euki, geiago nai,
bide ortatik dago jai!
Gordeaz, r;aldu, galduaz gorde,
Jesusen itzari jarrai;
artu ta emon, au da legea
danok izateko anai.**

Karmele Ansotegi'k bertso atsegingarriok irakurri euskuzan, biotz-dardaraz:

**Bizitza, ikurriña ta Euskalerrria,
zelako iru itz,
bat, besteak baiño ederragoa.**

**Bizitza: zoragarria!
Ikurriña: maitagarria!
eta Euskalerrria...
euskal anai-arreben bizitokia!**

**c.ua age. a la xzazigu (la Oiz1Lza,
eder, maitagarri gure ipurrida,
ba'daroagu biotz-biotzian,
eta bizi ba'gara, anai-arreba lez,
bakez, ta langille, Euskalerrrian.**

Karmele Aurtenetxe dator aipamena artu cben n artean lenengo. Mendia dau maite ta mendirako joerea dau, bere aizta ta goraspakaz Gorbei gaiñeraino joan oi da batzuetan. Ona aren lantxo, polito biribildua:

**Udabarria eltzen danian
mendira doaz mendigoizaleak.
An ikusten da eguzki argia,
an dagoz zugazti orlegiak,
eta txoritxu pozgarriak.**

**Asteko lanak amaitu eta
joaten naz ni be mendira,
neure aizta ta gurasoakaz
igoten dot nik Gorbeira.**

Maite A!barez'i Gernika'ko Zugatza etorri y aku burura, ta ari eskeiñi dautsoz iru aspaldiko bertsoak. Onatt diiotsa:

**Agur, Arbola maitagarria!
Zu gure asaben itxaropena!
Adar ta enborrez gurana!**

**Zu zara euskaldunek
egizko maitasuna;
zugan ipinten dogu
euskaldunok arnasa.**

**Zu izango zara beti
gure biotzeko poza.
Zure adarpean nik gaur
dagit betiko eskintza.**

**Euskeraz beti mintzatu,
geure lurraldea maitatu,
Euzkadi geure Aberria
goratzen alegindu.**

Zorione Etxebarria'k onela dabet Gerniks'n claukagun Arbila maitea:

**Gernika'ko Arbola,
gurezat maitea!
Bizkaia'k atsegin dau
zure kerizpea!**

**Biotzean daukazu
mamin illezkorra;
izan zakiguz beti
argi maitekorira!**

Kristina Etxebarria'k euskera, gure izkuntza, aukeratu eban bere k:ntagai. «Euskera, Euskalerriko izkuntza» titulupean bost aspaldi gartsuko lana burutu euskun. Baita polito irakurri be Enbeita'ren «Zainduko gaitu» ta bere jator au.

**Euskalerrriko izkuntza
Euskera da soillik;
non aurkituko dozu
izkuntza oberik?**

**Gure asaba zarrak
au mintzatu eben;
gu be saia gaitezan
berau itz egiten.**


**Txikiak naiz aundiak,
zar eta gazteak
lagun kutun bear dauz
F.iiskera maiteak.**

**Jarrai daigun lanean
Euskeraren aide,
geure biotz barrua
dogula sukalde.**

Garbiñe Apraiz'ena be orobat izan genduan gaiz, arin eta gozoa. Baita maikoak erabagi tartean esan eta abestu ziran besteak be. Bero-bero txalotuak izan ziran gaztetxo guztiak, euskeraren aldeko lan bikaiñagaitik batez be. Gaztetatik sartu bear yako umeari bere izkuntzaganako beroa, ta oneik, poesi-sariketa ontan esku artu eben gaztetxuok, ez dot uste egungo aztuko dabena guztiok emon genduan egun ederraren gomuta. Gora gaztetxo olerkariak!

Azkenez, sariketa onetan esku artu ebenai, aundi ta txikiak, eratu, lagundu ta arnasa ezarri cutsenai eskerrak gogoz egiñik, amaitu zan jai:adia, clatorren urtean obeto ta bcroago esanik. Betoz, bai, onako jaiak ugari!

EUSKALDUN BARRI



Gure Bilbo au, uri-buru lez, ez da beste munduko gauza. Orain 30 bat urteko Bilbo'ko argazki* batzuk ikusten ba'doguz berealaxe konturatuko gara, lengo Bilbao, oraingoa baño askosaz politagoa zala.

Lengo Areatza edo Arenala, ango ezkia, lengo Zabalburuko enparantza, **Indautxu** aldeko «txaletak», lengo garagardaotokiak, lengo Enparantza Barria (orain Madrilko «Plaza Mayor»en antza artuta) ta lengo... ta abar.

Orain 30 urteko Bilboa ez zan oraingoa lakoa, arrezkero gizonak aurrerapen asko lortu dau ta lengo erria aunditu egin da.

* * *

ITXUSIKERIA

Erri bat, naiz eta oso aundia izan, polita, txukuna ta erosoia izan leiteke. Orduan, Bilbo aunditzen zan bitartean zergaitik ez dira alegiñak egin* uriburu dotore ta txukuna egiteko?

Nortzuk errudunak?

Danok dakigu ondo, crrudunak nortzuk diran edo izan diran, euren norabidea* ez zan erria, euren sakelak baiño, eta sakelak diruz betetzeko gura izan dabena egin dabe.

Azkenengo «txapuza» Enparantza Barrian egin dabena izan da, lur-azpian, berebillak izteko leku bat egiteko, lengo Enparantza Barria zearo apurtu eben. Lanak oso luzeak izan ziran ta jendea zain egoan Enparantza barria barriz kusteko baiña azkenean ainbeste denpora itxaron ondoren zabaldu zanean bai naigabe aundia artu genduala, a zan gauza itsusia! Arria baño ez.

ASMO KARUAK

Bilbo berez kutsadura* aundiko leku bat da, ta uri-zarra ez dogu esan bearrik.

Len enparantza au arnas-toki txiki bat zan uri-zarreko zarata ta keien artean baiña orainbarria, gurea egin dogu!

Joan dan egunetan asmo batzuk agiri dira enparantza au barrizteko ta beste lan batzuk egiteko (okerrak zuzendu guraz edo), lan oneitan jesarleku ta argi-mutil edo farolak jartzeko asmoa dago, eta onetarako 27 milloi eragilko dirala irakurri dot egunkari batean. 27 milloi, aulki ta «farolak» jartzeko? Ori ez etc da diru lar, irakurleok?

* * *

EMPARANTZA

BARRIA



LAU ASMO

Nik neuk lerro onein bidez lau asmo emongo dodaz. Onak ba'dira gogoan artzeko, bestelan, asketzi ta ez jaramonik egin, baiña ori bai, ziur nago asmo oneikaz ez dirala orrenbeste milloi bear, ez orixe!

I.—Oso garrantzi aundiko gauzea neretzat, enparantza erdian, len egoan bezela kiosko bat eta eredu lez Durangoko Ezkurdi enparantzan dagona ona da nire iritziz.

Kiosko onetan txistulariak lekuri egokiena izango dabe euren joaldiak egiteko eta euskal jaialdi bat egin ezkeru bardin.

Kiosko-azpian irola* batzuk, Bilbon gitxi dagoz eta noizean bein danok izaten dogu estutasun bat iñoiz gorriak ikusi* doguz irola bat aurkitzeko.

Kiosko ondoan baratz txiki bat.

* * *

II.—Len egozan baratzak, bardin-bardin barriz jartzea.

Danok dakigun Icz enparantza au laukia da eta len baratzak lau ziran, enparantzako alde bakoitzian bat, baiña jaialdi bat ospatzen danerako lakurik ez ba'dago, Correo kalera emoten dauan aldekoa kendu geinke, olan kiosko aurrean dan-dana libre geratuko da, dantza egiteko edo cuskal-kirolak egitcko edo Tomas Deunaran azikarako, eta bear ba'da au izango litzakc lekuri egokicua Unamuno'rcn irudia jartzeko, kiosko aurrean.

ZEIÑEN ALDEZ

UMOREA TA UNOREA

Alako berezitasun bat ei daukagu bizkaitarrok umorerako. Ala esaten eban oraintsu Aita Gotzon Garate'k Deia'n.

Idazle hi izentatzen zitun berak: Kirikiño eta Juan San Martin. Nik dakidala «Aheletxe» hat, ez da, ba. kanpoan lagateko! Eta, eta...

Gauzak nundik eta zelan begiratu, izaten dira.

Adiskide bat ikustera Joan nintzan bein erri txiki batera. Unorez beteta ebillan. Eta umorez be hai.

Konturatzeko da erri askotan, erderazko «hurnor», ataraldietakoa izan edo ta gorpuzkin lotuena, erri berbetan n eta m'gaz alderatzen dogula: «umore» ta «unore».

* * *

IDI-DEMAK

Idi-prohak egozala eta nire laguna «kuadrilla» joan bear zala esan eusten.

Nik, fede onez, palkoan egon bear ko zala pe ltsatu neban. Baiña plazan sartu ta ango deadar, aiva ta aixak entzuten asi orduko, nun ikusten dodan bera sartain andi bategaz idiaren konpittak batu nairik, erdi errenka, brixak urtenda, komedi bizia egiten.

Zegaitik ez dira probetan, itzai eta karreteroekin batean, ango «funtziñoia» osotzen daben beste gizonak aitutzen?

Nik beintzat, euren itxura eta jokoa ikusita, eta batez be euren ardura ta osotasuna igarrita, esaten dan aiñako azpikeria eta zikinkeria probetan egoten ete dan zalantzanipiniko neuke.

* * *

OSPEA TA DIRUA

Ondu baietz! Ondo ezetz! Bi geiago baietz! Irurik ezetz!

Zenbat eta deadar andiago, guzur geiago?

Andik laster zan. Txapeldun geratu zan bat. Eta ast- bete orduko, joko barri bat gertuten ziarduen.

Txapeldunak, gain gaiñetik, irabazi nai eban. Eta gertu egoan arertoari diru saria, lenengo premiva emoteko, berari irabazten lagatekotan. Ospeak, izenak, entzuteak geiago balio eban, diruak baiño.

Egin eban tratua. Lenengo txapelduntzat egoan egin hear chart lana. Ori he tratuko zan. Ainbat antze egia zittnl.

Bestea asi zan bere ekiñean.

Itxura baten marka guztiak gainduteko Irau, tatarrez.

Aren tengada eta bizitasuna! Baiña besteak baiño untze hi gitxiagotan geldi, planto, oraindik denpora eukala. Ango tongo, tranpa, gantzeru, lapur eta antzcrako deadar-otsa!

*

SARTAINDUNA

Alako baten idictako hat berde likiña atzealdetik jaurtiten asi zan.

Gure sartainduna, unorez okertuta, jendearen gora-bera eta estutasunei hegira adiago egoan, idien premiñak zaintzen baiño.

Konturatu eta berdekeriak batu nairik urreratu zanean, sartaiña be eskutik jausi, likinkeri ta guzti, ta sartain zarra idiak ankarrean igarri ebanean, asi zan tengadaka, bere laguna be keixatu ta... beste icu untza tatarrez ez zituen egin ba?

Sal taindunak irabazi proba!

Batzuen imorea eta bestien unorca ikusteko ziran.

Umore baltz, berde ala zuria?

Ori diru jokatzalliei itandu, edo ta txapeldunen gorak ziurtzat eukezanei.

* * *

POLITIKA - DEMAK

Beste proba batzuk daukaguz laster. Politika-koak.

Adiskide batek ha daki emengo politikarren barria. Esaten daki: Iñok ezer ordainduko ez ba'gendu, cz kontrihuziño, ez asegurantza, cz bestelako zergarik... emengoa egiña legoke. Or ikusiko litzake euskaldunon nortasuna. Baiña herako ezin dan astero kiniela eta loterian ainbat diru jokatu barik geratu.

•Ez al dago orretan umore baltzik?

Auteskunde egunak datoz. Eta ha dabil jakin-naia: Zu zein alde?

Sartaindunagaz gogoratzen naz: zintzo dabil-lenaren aide. Ez da, ba, esaten sartaiña eskutik eukitea jokoerdi dala?

Baiña, zeatz: zein alde?

Jakin nai? Zereko zeraren aide. Edo ta nai ha dozu: ZER'eko zeregiñaren alde.

Ordago Igarri ta irribarr egin.

Bear dogu, izan bc, euskaldunok irribarrczka jarduteko txanda.

A. ZUBIKARAI

EUSKO SASATXONUAK

MENDIETAN

Basatxonuak, euzko hasalcizatxuak beintzat, aritu Inten mendiko zelaiunctxu baten, muño baten edo mendi-c allurretan aurkitzen dira.

Zergaitik'

Ba'litzake bealdeak basatxonu orreik jasoten asi ziranerako landuta aurkitzen ziralako edo, bai-ta Dcun usatiian bizi izan ziran gizon edo emakume zintzo areik, bakardadean egin eben lez etren bizitza, euren izenean jasoten ziran basatxonu orreik be orretariko lekuetan jaso gura izatea.

Eta, orretariko basatxonu bat Oiz-mendi n dogu, 750 neurkin inguru goiti dituan zelaiuue garbi baten da, Astaburu gallurraren aldamenean, Kistobal deuna'ri zuzenduta.

*

OIZ'EN

Basatxonu orrek ez-dau ertirik, arterik, ez bar uz, cz atetik, gore argazki ontan ikusi leiteken lez. Beraz, ba'leitake antziña-antziñakoa ez izatea, nai a orain urte gitxirarte oso zar-antzera nurkitzen izan dan, guztiz utzita.

Orain barriz, polito apainduta aurkitzen da... baiña mendiko aterpe bat ba'leiteken antzera geiena.

Aurre aldea, Sorkaldera, Kistobal'en irudia aurkitzen dan atterdia, burdiñezko esiz, —ate nat erdian dauala— sarratuta dago eta, enparaua iru zatitatik bi, aterpe lez, sarrerako atean ea neuskin bateko esitxua dauala abercrik sartu ezdaiten.

Egiz, guk siñeskera daukogunok basatxonu edo ermita orrei begirune andigoa dautsegu, baiña, nik azkenengoz ikusita • neukancan baiño egokiago deritzat, —erdi-jausian autkitzen zalako—, orain dagoan-antzera, apainduta eta txukun.

* * *

Edozeñek dakitan lez, betez be aurrtalle edo txoperrak, Kistobal deuna, Colon zaindari dalako, notitza andiak igoten eben leku alai ortara Gari-Ila'n amarrean, Ibarruri ta Arbaizegi'tik eta bai Du'ango aldetik be.

Izar]. here lenen aipattt doguzan erri hi orrenak izan bear dau basalciza orrek.

MENDIRIK MENDI

Lenen basatxonu ori ikusi gendubala ogei ta amabost unie inguru Izango dira, edo zerbait

.Neure mcnci zaletasunak hullzalttla, urten nittlut Zornolza'n (Amorchict;t'n) hultzitik eta, utendi-zorro, lepo; <n nebala, ltt bakar-bakarrik, igaro Elx,tno'tik eIa eldu nintzan \lunikcta-ganera,



andik Maume (orain \lagunas esaten dautsoe; tik gora gorago aipatu dogun Kistobal hasatxonu'ra, berari ikusi bat egin, otoitxu bat egiñez, eta Oiz'eko gallurrera, Bertan, gallurreran egin neban egotaldi luzetxu bat begiak zabal-zabalik nebazala, Bizkai guztia ta Gipuzkoaren eta Ipaz —aldeko Euzkadi'ren itsaz— hasterrak ikusiten nebazala.

Alango baten amets gozo batetik itztuntu tzalako tn, jarraitu neban berantza baiña ganikgan, Zt ngoitia-gane'tik Berriz ta Olakueta'n barriz bultzia artzeko. Jakiña, orain lez ez neukan neure sterna zaurituta.

* * *

EUZKADI'RA BEGIRA

Aldi artako, Bizkai'ko Aldundegiak «Bizkai'ko Txigua» edo «Balcon de Vizca^ya», egiñik eban Zugaztieta, Urretxu'tik i-\rbaizcgi'ra doian bitxabalear, Oiz-barrenean, ikusmira, ikuskizun ederra dagon lekuan, baiña, Oiz'eko gallurcau egon nintzan egun ortan esan neban; au cIa benetan Bizkaia'ren, da Euzkadi'ren zati andi baten, benetako txigua, balkoia.

Ordutik ona ainbat bider egonaz mcnci-gallur orretan, baten baiño sarriago ahestuaz Iparragirre'ren abesti ederra, baiña neure erara; <. \ra nun diran, mendi maitiak, / ara nun cliran zelaiak, / basarri eder zuri-zuriak, it urri ta ibaiak, Oiz'ncudin. nago, zoratt u'ikatt, zabal-zabalik begiak; / Ara Euzkadi lurra lakorik, j ez-dago Ludi guztiau».

* * *

Orain erraz dago Oiz era igoten, argazki au atera neban udegoicngo egun cguzkitsu —baten igon-- neban lez neure emazte ta illoba bi'gaz, burdiñezko «hurdiu», Garaitik gora hitxahaa dagolako goira ante, nai-ta guk hasalxonu'ra arte bakarrik eroan gcndu. ut berebilla.

Irakurle! ezagutu Hai ba'dozu Bizkai'ko ikus-tokirik bikaiñen bat, igon egizu, oiñez edo berc-billez, Oiz-mendira eta, ziur, ez jatz.0 damoltiko.

A.I UN.A'iar ,JOSU

EUSKERAZALEEN LANAK (1978)

EUSKERAZALEAK-ALKARTEAK bere urteroko batzar nagusia egin dau urterillaren 31'n eta Kalasanz'darren etxean. Zubiri'tar Iñaki zuzendariak irakurri eban urte guztiko lanen gomutapena, eta berau argitaratzea izango dala gauzarik egokiena uste dogu, orrelan barriak iturririk egokienetik artzeko.

IDAIZKOLAKOAK

LEKUONA'REN OMENEZ

Lengo urtean, Kardaberaz Bazkuna'k D. Manuel Leukuona'ren idazlan guztiak argitaratzeko asmoa artu eban.

Orretaraka, Kardaberaz Bazkuna'k Euzkadi'ko aldundiak ta Aurrezki Kutxai eskatu eutsen asmo orretarako bearrezkoa zan dirualaguntza.

Laguntza ori lortzeko Bizkaia'n gure Euskerazaleak'ei eskatu eutseen.

Olan ba, Bizkaiko Aldundiari, Bizkai-ko ta Bilbao'ko Aurrezki Kutxai egiñiko eskaerak gure bidez egin izan dira, ta bearrezkoa da emen aitortzea gure leengo lendarikariak, Jesus Oleaga'k, arazo onetan emondako laguntza andia. Eokaera onein, ondorio lez, Bizkai'ko Aurrezki Kutxak 250.000 peseta emon dauz, ta uste dogu Bilbao'ko Aurrezki Kutxak beste ainbeste emongo dauala.

ZER ILLERO

Gure aldizkaria «ZER» illero-illero argitaratua izan da, bizkaiera jatorrez.

Emzn be aitatu bear dogu alburu ori lortzeko, Bizkai'ko ta Bilbao'ko Aurrezki Kutxak emon dauskuen laguntza.

Erakunde onein orin-arteko izandako laguntzak, uts egiten ez ba'dausku, gure aldizkariaren iraipena sendotuta geratuko da.

EUSKAL - AMABOSTALDIA

Pazko-aldian Euskal amabostaldia gertatu genduan.

Iru gai erabili ziran: Lutelestia, Kondaia ta Elertia.

Lutelesti irakespena, Yosú Legarreta'ren ardura-pean izan zan. Kondairarena, Estonbe'tar Manuel'ek azaldu eban. Aita Sand Onaindia'k Elertiar buruz jardun eban, eta azkenez, textoen azterpen interesgarri bat, Olazar'tar Martiñ'ek burutu eban.

Ogeitik gora ikasle tarteko izan ziran, eta arnabostaldi onek arrakasta andia lortu eban, guztien iritiz.

Aita Eskolapioak arazo orretarako ikasgela egokia eskindu euskuen, bai ta duan. Bejoak gure eskertik beroena.

EUSKERA IKASBIDEA

Bere ikasbideari jarraituz, Xabier Peña'k egindako driete-jokoak Euskerazaleak'en salgai jarri dira.

Naiko ondo saldu izan dira, oso argi ta ikasgarriak askalako askoen iritiz.

EUSKALTZAINDIAR AGIRIA

Garagarrilla'ren 14'gnean, Euzkadi'ko beste erakundeakaz (Gipuzkoa ta Araba'ko Euskerazaleak, Goizardi asterokoa, Kardaberaz Bazkuna, Euskera Lagunak, Edili, Editorial Auñamendi ta abar) agerpen bat bialdu geuntzen Euskaltzaindiari, eskabide onekin: gizarte ta euskal egoera oiñarritzat arturik, berraztertu egiazala 1968'an Arantzazu'ko batzarrean emondako aolkuak, eta barriri jo egiala 1.936' koan urtean erabiltzen' zan idazlkereari.

Euskaltzaindiaren erantzuna izan zan, Irailla'n Bergara'n egiteko zan batzarrean arazo ori aztertuko zala, ta orduan zegokion erabakia artuko ebela.

Dakizuenez, gure eskaera ez zan ontzat artu.

EUSKERA - IRAKASKINTZA

Irailla'n asitako ikastaroak, beste urteetan ez, erantzun ona lortu dau. Aurtengo ikastaroan 460 ikasle daukaguz, gitxi gora-beera beste urteetan lez.

Onezaz, gaiñera, 10 irakasle-agiriak emon izan dira. Xabier Peña'k atondutako azterketa igaro ondoen.

Igarotako udean, Udako Ikastaldi bat antolatu genduan.

LIBURU - ARGITALPENAK

«Iniciacion al estudio del Euskera» luburutik 5.000 ale argitaratu dira.

Beti lez liburu onek izandako arrera onagaitik, uste dogu aurrerantzean be, beste argitalpen batzuse be egin bearko dirala.

KILI - KILI

Dakizuenez, Jose Antonio Retolaza'k orain amairu urte inguru sortu eban umeak abedetzeko edo alfabetatzeko.

Sortu zanetik, Euskerazaleak bere laguntza ta legezko babesa eskindu eutsozan.

Gaurregun, abedetze-eragintza ori, anditu da benetan, ta anditze onek ba-dakar beragaz naiko buruauaste, diruarena garrantzitsua izanik.

Igaz, gure Kili-Kilik estu ta larrialdi ugariak jasan ebazan. Anditze oneri aurre egiteko, bere zuzendariak erosi ta tzukundu eban Sorrera kalean idaztegirako bearrezkoa zan bizi-mailla bat.

Beste eragozpen bat sortu zan gero: Gure Jose Antonio Retolaza'k geisoaldi bat jasan bear izan eban.

Alan eta guzti be, 3.000 ume ingurukabedetze-ikastaldia artu eban.

Onezaz gaiñera, «Kili-Kili» izeneko ume-aldizkaria argitaratu zan, eta jakingo dozuenez, Donostia'n 15.000 umeekin «Kili-Kili-Eguna», arrakastarik andienaz ospatu zan.

LAGUNTZAILLEAK BEAR

Esan bearrean gagoz, Kili-Kili'ren iraupenerako, Bilbao'ko Aurrezki Kutxa'k emondako diru-laguntza oso andia izan dala, ta orregaitik eskerrak emotak dautsepuz erakunde orreri. Uste dogu, igaz lez aurten be, Bilbao'ko Aurrezki Kutxak emonkorra izango dala.

«Kili-Kili»'k be ba'dau beste laguntzabaten bearra.

Lankideen laguntza, izan be. Ba-dira zergaitik edo agaitik astia daukenak, eta onein ordu batzuen laguntza idaztegian, oso onuragarria litzake, ta gure umeen abedetze orrek, benetako bultzada artuño leuke.

AURRERA - BIDEA

Ikastolak gero ta ugariagoak dira, baiña Kili-Kili ingurraztiak, arlo baten oso interesgarriak biurtu daitekez.

Ikastetxe ta eskola askotan, euskarari dagokion garrantzia ikusten asi dira, ta sail onetan «Kili-Kili»'k ba-dauko zer egiñiko, batez bere gaurregun irakasleak topatzea zailla dala kontuan arturik.

«Lan eta Lan» deritzan, abedetze-ingurraztia. Leenengo maillarako orain arte zabaldu dana da, baiña bigarren eta irugarren maillarko bearrezkoak diranak, esandako oztopoakaitik oraindiño ez dira agertiu.

Barriri bei, diruaren leentasuna agertzen da, bai ta lagun astiarena be.

«Kili-Kili»ren beste ingurraztiak atontzeko, izkuntzariari, inakasleen, gogolarien, marrazkilarien eta bateratzaille baten laguntzak bear dira.

Ia ba, orain arte izandako diru-laguntzaz eta euskaltzaleen ordu-laguntzaz, asmo ori aurrera eroaten dan.

Besterik ez.

ZUBIRI'tar IÑAKI'k

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI - AKADEMIA
LENENGO AGERPENA

—Kezka baten beroan erne da Euskeraren Erri-Akademia: Euskerak gaur bizi dauan egoera larriak sortu dau. EUSKERAZAINTZA, euskeraren bizi-eskubideak zaintzeko eratua da.

* * *

—«Euskeraren Erri-Akademia» dan ezkeru, erri -euskeraren serbitzu ta laguntza zuzenean jardungo da. Erri -Euskeratik joko dau ta erriarekin ibilliko da gaurko bizi-unerako bear dauan Euskera osotuz.

* * *

—«EUSKERAZAINTZA» dan ezkeru, Euskera aldeztara dator, gaur bizirik dagoan Euskera babestera, gaur bizirik dagozan euskalkiak euren arnas larrian jasotzera.

* * *

Erri-Akademia ez dator euskalkiekin museo bat antolatzen, ez dator bizirik dagoan euskera jaso ta kutxa zaarretan gordetzera.

—Bizitik biziagora ibilli nai dau, Euskera bizitik Euskera biziago ta indar-tsuagora.

* * *

Bizi danak ba-ditu bere legeak eta E'iskerak ere bai. Euskerak errian bizi bear dau gaur eta errian biziko da biar. Erriar en bizi beraren esanera.

* * *

—EUSKERAZAINTZA, lege oien agindura jartzen da asiera-asieratik.

* * *

—Bizi-lege orreitatik letorke Euskeraren oparoa ta barru-batasuna. Barru-bizirik, bizi beteak, bateratu dagike Euskera ta ez azal-zuriketak.

* * *

EUSKERAZAINTZA, Euskera bateratuaren aldekoa da ezpaibarik, eta aalegin guztiz saiaturiko da eginkizun orretan, baiña erri-euskeraren buztarritik bere burua askatu gabe.

* * *

—Euskalkiak, Euskeraren bizi oparoak bakarrik bateratuko dituan ezkeru, Euskeraren bizigarrirako daitekean lana, ontzat artuko dau EUSKERAZAINTZA'k.

—EUSKERAZAINTZA ez dator izen barri ta sigla batzuen billa... Baiña izen baten billa jo bear izan dau, eta erakunde bat antolatu, beste zenbait erakunderen aukeran, lana egingo ba'dau.

* * *

Euskeraren Erri-Akademia ez dator iñoren aurka, erri-euskeraren aide dabil.

Eibar'en 1979'go urtarrillaren 27'an.

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAZALEAK-ALKARTEAK ANTZERKI - TALDEA SORTU GURA DAU

Gure jakintzaren sortze ta zabaltze-lan onetara sartu gura dabenak, bialdu begiez euren izenak Colon de Larreategui, 14, 2.ºra. Taldearen zuzendari izatekoak naiz antzezlarriak naiz edozelako laguntzailleak onartuko doguz, orretarako gai ba'dira.

EUSKERAZALEAK - ALKARTEAK

Agirre'tar Joseba Andoni

Jaungoikoaren aurrean apalik,
Euzko lur gainean zutunik,
Asabearen gomutaz,
Gernika'ko zuaizpean
Nere aginduba ondo betetzia
Zin dagit.

GIZON AUNDI BI

Erratuteko beldur barik esan geinke, azkenengo 83 urtetan gizon bi dirala danen gainetik gailenduten diranak: Bata Arana'tar Sabiñ, bestea Agirre tar Joseba Andoni.

Ni ez naz inor ez batagaitik ez besteagaitik ezer esateko.

Sabiño'taz asko esan eta idatzi da, baiña siñestu-eziña da Joseba Andoni'taz idatzi dana, ain gitxi da!

Gizon onen 19'garren urteaurrena dogu it zanetik eta ona, nere aldetik lerro onek omenaldi txiki dira Euzkadi'ko Jaurlaritzaren lenengo lendakarientzat.

* * *



Baiña ordurako berandu zan, guda asita egoan, eta Agirre arazo aundi bategaz aurkitu zan: Euzkadi, ren askatasuna zaindu.

Azkenean gertatu zana danak dakigu: kanpotarra idoren etxean sartu zan eta etxekoa kanpora joan bear.

Auxe jazo jakon Joseba Andoni'ri, eta Europa'ko eta Amerika'ko bideetatik laguntza eskatzen ibilli ondoren 1946'en Donibanen gertzen da, urrengo urtean Paris'era doa Jaurlaritzari jarraia emoteko.

Euzkadi'ko Jaurlaritza ez zan sekula il, bizirik egoan eta dago.

1960'ko Epailla'ren 28'an ainbeste neke igarotako biotza geratu egiten da.

* * *

SENDIA TA IKASKETAK

1904'ko Epailla'ren 6'an jaio zan Bilbo'ko «Calle de la Cruz»en.

Aita Bergara'koa eban, lege-gizona, aAa ostera Motriko'a.

Gaztetik jatorken abertzaletasuna Joseba Andoniri, aita be abertzalea zan, eta Arana'ren laguna antza danetik.

Orduda'n, jesuiten ikastetxean Batxiller ikasten egon zanean, abertzale legez agertuten zan bere maisuaren aurrean.

Orduña'tik Deustu'ko Ikastetxe Nagusira joan zan lege-gizonen ikasketak egitera.

LEGE-GIZON ETA ERRIGIN

Amaitu ondoren despatxo bai euki eban, baiña laster politikaren munduan oso-osoan sartuta egon zan.

Primo Rivera'ren diktadura denporan «Accion Catolica»ko gazteen aldeko lendakaria zen; baiña ordurako E. A. J.'n sartuta egon ei zan.

1931'ko Loraila'ren S'n Getxo'ko zinegotzi egiten dabe, ta gero alkate legez ikurriña jasotzen dau udal-etxean.

Urte berean, 1931'n, aldun urtetzen dau Bizkaia'n E. A. J. en aldetik.

1936'ko Urrilla'ren España'ko korteen aurrean itzaldi bat emoten dau Estatuto'agaitik eskerrak emenez.

Estatuto orrek, euskalduneri naiz eta askatasun osoa ez emon, beintzat zeozer emoten ebala esan eban.

Itzaldi au bere kristiñautasunetik begiratuta emon eban, Elizea aurretik ipidita, ez zan erreza alako itzaldi bat emotea orduko giroan.

Orduan Espada'ko egintarien eta aldunen artean elizearen aurkako giroa zegoan.

* * *

LENDAKARI

Sei egun geroago, au da, Urrilla'ren 7'an, alkate eta zinegotzi guztiak Gernika'n batzartuta Euzkadi'ko Jaurlaritzaren lendakaria aukeratzin dabe.

Lendakaritza ori Agirre'tar Joseba Andoni'rentzat da.

Bizkaiko'ko gobernadoreak, Republikaren izenean gizon onen eskuetan ipintzen dau Euzkadi.

GIZON AUNDIA

Baiña politika aldetik aundia ba'zan aldetik ez zan txikiagoa.

15 urte eukazala il aita jakon, eta seme zaarrena zanen esker, anai-arrebeen ardurea artu eban.

Euskaldun jator lez, kirol eta musika-zalea zan, Bilbo'ko Athletic'en jolastu eban, «txokolatero» deitzen eutsoen, beste Agirre bategandik bereiztuteko.

Ez-izena sendiaren ogi-bidetik zentorren.

Gaiñera izugarria da, sekula bere politika-arazoak etxean ez agertzea, etxean sartueran aztu egiten abazan.

Kristiñau aldetik jakiña da Kristoren jarraitzailea zala, eta ikasbide au bere biziaren oiñarria izan zan.

Baiña ez eukan esku batean gurutzeta eta bestean ezpatea etsaiak lez, askoz be zintzoagoa zan.

Bai, nere ustez, 1960'ko Epailla'ren 22'a Euzkadi'ko kondairan egun baltza izan zan: gizon aundi bat galdu eban gure Aberriak !

ABERKIDE

EUSKERA ZALEAK

EUSKERA ZALEAK - ALKARTEAK aurten be egin dau urteroko Batzar Nagusia. Urte-barruan egin diran lanak aztertzeke eta Alkartek izan dauan norabidea ikusteko izaten da batzar au eta orrelan izan be izan zan.

• *

Lenengo Ibarra'tar Bernardo gure idazkariak igazko batzarreran agiria irakurri eban eta agiri ori onartu genduan guztion eretxiz.

* * *

Urrengo gure Diru-zain dogun, Bilbao'tar Jon Erramun'ek, euskera garbi eta ederrez, gure diru ta ondasunen barria garbi eta zeatz emon eban. Zuzendariak, erderatu bearrik ete egoan itandu eban, baiña iñor ez eban orren bear-izantik erakutsi eta ez zan erderatu.

* *

Gero, ZER'en zenbaki onetan beste orrialde baten datorren urteko gomutapen-agiria iralr urri eban Zubiri'tar Iñaki Zuzendariak eta au erderatu be egiteko eskatu eurtoen eta orrelan egin eban.

* * *

Azkenez, itaun eta eskarien artcan alkar-izketa naikoa luzea izan zan. ZER aldizkaria goratu eben bazkideak, baiña EUSKERA ZALEAK taldean batek eta bik baiño geiagok euskerarik ez dakien ezkerro, zerbait erderaz be argitaratu bear gendukela eskatu eban batek. Esaterako lenago argitaratzen zan orriaren atzeko bat.

Maiburukoak, orretarako eragozpenik ez zala ikusten esan eutsoen eta gai ori sakonago aztertuko zala maikoen artean.

* * *

Batzar onen barria izparringietara bialdu zan egun beratan eta barri ori agertu be egin zan, esaterako DEIA'n, baiña ez bialdu zan lez, asko aldatuta baiño. EUSKERA ZALEAK aldizkari barri bat aterako ebela erderaz, esaten eban, eta ori cz zan emon geuntsen barria.

* * *

Batzarra Kalasantz'darren ikastetxean izan zan, Rekalde'ren Ibiltokian, eta irakasle bikain onei, ain abegi onez artu ginduezelako eskerrak emoten dautseguz.

IZKI - SOKUAREN ERANTZUNAK

